

INDUSTRIA PRODUKZIOAREN INDIZEA. 2022KO MARTXOA

Euskal AEko industria-jarduera % 4,6 hazi da 2022ko martxoan


2022ko lehenengo hiru hilabeteotako metatuan, Industria Produkzioaren Indizeak % 7,9ko hazkundea izan du

Eustaten datuen arabera, eta lan-egutegiko termino homogeneoetan, Euskal AEko industria-produkzioa 2022ko martxoan % 4,6 handiagoa izan da 2021eko hil berean baino.

2022ko martxoa aurreko hilabetearekin alderatuta, ordea, Euskal AEko industria-produkzioa % 2,1 murriztu da, urtaro-ondorioak zuzenduta.

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizearen urte- arteko aldakuntza-tasa (%)

Jaiegunen eraginetatik zuzendua



Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

2022ko martxoko indizearen bilakaera, 2021eko martxoarekin alderatuta, desberdina izan da industria-sektore handietan. *Energian*, sektore bat non energia elektrikoaren ekoizpena eta hornidura eta petrolioaren fintzea barne hartzen diren, % 11,6 hazi da produkzioa. *Ekipo-ondasunetako* produkzioa (ibilgailu motordunen fabrikazioa, tren-makinen eta trenbide-materialen egitea eta aireontziak edo itsasontziak egitea barne hartzen dituena), bestalde, % 11,2 igo da.

Kontsumo-ondasunak, osotara, % 6,0 igo dira, *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak* % 9,2 igo direlako, zeren *Kontsumo-ondasun iraunkorrak*, aldiz, % 6,8 jaitsi baitira. Elikagaien fabrikazioa, prozesatzea eta kontserbazioa, garbiketarako eta higienerako produktuen fabrikazioa eta jantziak egitea dira *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* epigrafearen barruko jarduerak. Altzarien eta etxeke tresnen fabrikazioa dira, besteak beste, *Kontsumo-ondasun iraunkorren* sektoreko jarduerak.

Aitzitik, *Bitarteko ondasunek* (metalurgia eta produktu metalikoen fabrikazioa, industria kimikoa eta kautxu eta plastikozko produktuen fabrikazioa barne) % 0,8ko jaitsiera izan dute urte arteko terminoetan.

Euskal AEko Industria produkzioaren indizea lurralde historikoaren eta ondasunen helburu ekonomikoaren arabera. Aldakuntza-tasak (p). Martxoa 2022

	Egutegi eraginak zuzendutako datuak		Datu desestazonalizatuak
	m / m-12	Am / A(m-12)	m / m-1
INDIZE OROKORRA			
Euskal AE	4,6	7,9	-2,1
Araba/Álava	1,5	5,9	-3,4
Bizkaia	8,2	9,3	-0,5
Gipuzkoa	2,9	7,8	-2,8
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK			
Kontsumo-ondasunak	6,0	8,9	-0,6
Kontsumoondasun iraunkorrak	-6,8	0,3	-5,0
Kontsumoondasun ez-iraunkorrak	9,2	11,1	0,5
Ekipo-ondasunak	11,2	15,0	-2,0
Bitarteko ondasunak	-0,8	2,3	-3,0
Energia	11,6	12,8	-3,9

(p)Behinbehineko datuak

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Am / A(m-12) Urte arteko aldakuntza-tasa, urtaririletik behatutako azken hilera arte metatutako aldian (Am), aurreko urtean pilatutako aldi beraren (A(m-12)) aldean

m / m-1 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

Data 2022ko Maiatzaren 5a

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Xehekiago, Euskal AEko industrian pisu handiena duten sektoreen artean, honako hauek izan dute urte arteko hazkunderik handiena 2022ko martxoan: *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (% 19,3), *Material eta ekipo elektrikoa* (% 19,1) eta *Makineria eta ekipoa* (% 15,4). Bestalde, jaitsiera izan dute ekoizpenean *Kautxua eta plastikoa* (% 11,5ekoa), *Zura, papera eta arte grafikoak* (% 3,3) eta *Garraio-materiala* (% 0,2) sektoreek.

Euskal AEko Industria produkzioaren indizea. Sektore A38 nagusiak (1). Urte arteko hazkunde-tasa (p). Martxoa 2022

	m / m-12
Elikadura ind., edariak, tabakoa	3,1
Zurgintza, papera eta arte grafikoak	-3,3
Kautxua eta plastikoa	-11,5
Metalurgia eta produktu metalikoak	6,0
Materiala eta tresna elektrikoak	19,1
Makineria eta tresneria	15,4
Garraio-materiala	-0,2
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	19,3

(p)Behinbehineko datuak

Egutegi eraginak zuzendutako datuak

(1)Euskal AEko industrian pisurik handiena duten sektoreak

Data 2022ko Maiatzaren 5a

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Martxoko Industria-produkzioaren indizearen urte arteko bilakaera positiboa izan da hiru Lurraldeetan: Bizkaian % 8,2ko igoera izan da, Gipuzkoan % 2,9koa eta, azkenez, Araban % 1,5ekoa.

INFORMAZIO OHARRA

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie informazioa biltzen lagundu duten establezimendu guztiei. Haiei esker, martxoko indizea laginaren % **93,62ko** estaldurarekin kalkulatu da.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62